

## KAZETARI-L@NA EUSKAL HERRIAN

## Intrepretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak

Txema Ramírez de la Piscina Martínez  
UEU, 1997, 353 or.

Premiak aginak zorrotz. Ez dut uste atsotitzak horrela dioenik, benetakoak gosearen zorrozatasuna aipatzen duela uste dut. Berdin dio, zeren premiak bultzatuta idatzirik baitago liburu hau. Bi premia bizi-bizi daude testu honen oinarrian: ikasleei euskarazko materiala eskaintzeko premia eta, zergatik ez, *curriculum*a betetzeko premia. Biak premia, biak beharrezkoak, testuari ekin dionarentzat. Eta egia esan, gose den ikasle-irakurleak bertan aurkituko du ogi-zati bigunik.

Hogei urte ederki betetako euskal *adarra* eduki arren, testu-liburu eskasia gorrian bizi da oraino Leioako (UPV) Kazetaritza Fakultatea (orain Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea). Batetik, inongo plangintzarik ez dagoelako horretarako —beraz, tradiziok ere ez, izan ere zer dira hogei urte tradizioa osatzeko!—; bestetik, irakasleek, *karrera* egin beharra daukatelako lehenik. Euskaraz produzitzea baino lehenago, noski; hori ez baita, tamalez, helburu hura betetzeko kontsideragarri. Edonola ere, oztopoak oztopo eta trabak traba irakasle batzuk abiatuak dira, zorionez, ekinbide horretan, eta dagoeneko bost ale kalean daude<sup>1</sup>, soka luzeago baten seinale, agian.

Ohar hauek argitaratzen direnerako, Txema Ramírez de la Piscinaren liburuak —orain hemen begiradapean hartu duguna— ia ikasturte osoko ibilbidea egina izango du, apunte deserosoen ordezkotzan. Liburuak «oinarriko materiala izan nahi du» eta, aldi berean, «lanean dihardutenen kazetarietara ere erabilgarri gerta dakiekeen testua».

Bistan da, bereziki, lehen helburua betetzera datorrela liburuak. Izan ere, orri batean bai eta bestean ere bai, argi uzten du egileak bere asmoa; ez, hain justu, hori esaka dabilelako, ikaslearekin (eta balediko irakurlearekin) solasean jarduten duelako, baizik: «...zuek, euskal kazetari-gaiok...», «izan ere, ikasle zaren horri, ezinbestekoa zaizu»; «lasaitu ondoren, hauxe pentsatu behar duzue», «honako hau duzu, ikasle... irakurle»; «kontuz, ikasle», eta holakoak baterik dago testua; aholkuz, iradokizunez, proposamenez eta abarrez josita. Hori gutxi balitz, atal bakoitzaren atzeko aldean, "*ikaslearentzako ariketak*" dakartza: hiruzpalau, dozenerdi, premien arabera. Hemen ere, Basterretxeak (1997) ireki zuen ildoari jarraikiz, kapitulu bakoitzaren ostean, bibliografia osagarria dakar, arloari dagokion heinean, euskaraz idatzirik dagoena aipatuz.

1. Diaz Noci, J. (1995): *Kazetaritza-Idazkuntzarako Eskuliburuak: informazio-generoak*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Leioa; Zabaleta Urkiola, I. (1997): *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*, UEU, Bilbo; Basterretxea Polo, J. I. (1997): *Komunikazioaren eta informazioaren oinarriak*, UEU, Bilbo; Basterretxea Polo, J. I. eta González Abrisketa, M. (1997): *Semiotika*, UEU, Bilbo; Ramírez de la Piscina Martínez, Tx. (1998) *Kazetari-l@na Euskal Herrian*, UEU, Bilbo. Lehena izan ezik, UEUren eskutik datoz beste guztiak, UPV-EHUren plangintzarik ezaren adibide ezin argiagoa hau ere, nahiz eta diru-kontuak direla bide Unibertsitatearen ikurra eraman liburuok. Gaitz erdi!

Liburuak bi zati dauzka: *Idazketa Prentsan: Informazio orokorra eta Kazetaritza Berezitua I: Elementu orokorrrak eta lanbide-irudiak*, hurrenez hurren, egileak Leioako Fakultatean, Kazetaritzako 3. mailan, lehenengo eta bigarren lauhilekoetan ematen dituen ikasgai banaren arabera antolatua, bai, baina berezko ukitu dexentez horniturik.

Lehenengoak bi azpizati dakartza: a) *Interpretazioa eta errealtatea gaur egungo kazetagitza* (zeinean, kazetari-lana nolakoa den eta lanik ohikoenak zeintzuk diren, euskal estilorik badagoen eta bertara nola hurbildu, informazio-iturriak non dauden eta nola jokatu handik edaterakoan, eta antzeko gauzak aztertzen diren); eta b) *Teknika interpretatibo desberdinak kazetaritza-generoen arabera* (non, literatur kazetaritza eta elkarrizketa, albistearen analisia, interpretazioa eta balorazioa, kronika eta erreportaia interpretatiboak eta, amaitzeko, teknika eta estiloa arakutzen diren).

Bigarrenak ere beste bi azpizati ditu: a) *Definizioa eta elementu orokorra* (zeinean, kazetaritza berezituaren definizioa bila joan eta espezializazioaren bidea hartzen duen kazetariaren erantzukizunak seinatu ondoren –euskarazko prentsaren arrastoen adierazpenak barne–, III. milurtekoan ezinbestekotzat jotzen diren teknologia “berrien” gorabeherak azaltzen diren); eta b) *Lanbide-irudiak edukien arabera* (non, herriko edo tokiko informazioa, informazio politikoa, kazetaritza ekonomikoaren historia, nazioarteko informazioa, kirol-kazetaritza eta kazetaritza zientifikoa lantzen diren). Ikasgaien harira idatzi beharrak gairen bat errepikatzen bultzatu duela esango nuke

nik: *gatekeeper-gatekeeping*-i dagokiona, hain zuzen ere<sup>2</sup>.

Bi atalotan, nabari-nabari agertzen da, Ramírez de la Piscina euskal-kazetaritza alorrean egindako ekarpenak aipatzeko hartu duen ardura. Izan ere, gorago aipaturiko bibliografia osagarriaz landa, aipamen ugari baitakartza: lead-estiloaz, (Jose Artetxeren kasua, 20. or.); euskal estiloaz (Zubimendi-Esnal, Lekuonaren bidetik, 22-24. orr.), literatur kazetaritzaz (Oh Euzkadiren kasua, 82-85. eta 151-153. orr.), kronika interpretatiboaz (Juan Bautista Bilbao “Batxiren” kasua, 113-114. orr.), erreportaiaren aztarnak euskarazko prentsan (Gregorio Muxikaren kasua, 126. or.), 10. kapitulu osoa (*Especializazioaren arrastoak euskarazko prentsaren historian* izenekoa), euskarazko prentsaren erronkaz idatziriko orriak (212-218. orr.), euskarazko herri-aldizkari buruzkoak (232-238. orr.), *Elhuyar* taldearen ekarpenaz (331-332. orr.). Hori, adibide klasikoek bagagozkio. Ausartagoa suertatzen da, eta, beraz, txalogarriagoa ere bai, ia atal bakoitzean egun-egungo kazetariaren adibidea aukeratu eta *eredu* bihurtzea<sup>3</sup>: Pello Urzelai, analisiaren eredu –HBko Mahai Nazionalaren espeteratzea dela-eta–; Enekoitz Esnaola, kronika interpretatiboaren eredu, –kirol kronikan–; Iñigo Olabari eta Martxelo Otañendi –1997an Artxanda eta Muskitzen izandako gertakizun hitsez idatzitakoan–.

## Zenbait oharkizun

Testu hau, teoria mailan, ezer berririk ez dakarren arren –beste zenbait hizkuntzatan egin diren kazetaritzari buruzko testu ortodoxoen parean da-

2. Ikus 26-30 orr. (lehen atalean) eta 180 or. (bigarrean).

3. Suete apur batekin, adibide klasiko bihur daitezke adibide horiek. Nahikoa da testugileen ohitura nagia errepikatzen bada, aurrekoek emandako adibideak berrematen jardutea, alegia.

goela esan gura dut–, asko da gurean argitaratzeko. Euskara ezin aberatsagoan idatzita dator, argitalpen txukun eta erabilgarrian, bibliografia orokor eta berezi osoa duela, adibide, ariketa, glosario eta guzti. Edozein modutan, nik oharkizun xume batzuk egin nahi ditut, osatzeko asmo hutsez.

*Kazetaritza Berezitua* delakoan egiten den sailkapenean, Ikerkuntza-kazetaritza hartzen dut faltan. Azalpen bat bilatzen jarrita, agian, ez dakit, esan daiteke kazetaritzak beti izan behar duela, definizioz, ikerkuntza. Baina, edozelan ere, ikerkuntza-kazetaritza azpialal berezi moduan ulertzeko arrazoirik ere badago, besteak beste, sail horretan beste inon ikertzen ez diren gaiak ikertzen direla, adibidez. Eta gurean, gaztelaniaz izan arren, eredu bihurtu dira Pepe Rei eta bere taldea, desagertu den Eginen orrialdeetan. Kazetaritza zientifikoak berriz, badu, aspalditik, bibliografia.

Informazio politikoari buruz, berriz, ez da nahikoa, «presioak, manipulazioak, azpijokoak, intoxikazioak sarri gertatu ohi» direla esatea. Ez da nahikoa eta nik, bederen, ez dut ulertzen zergatik ezkututzen den edo, gutxienez, zergatik beti aipatu gabe uzten den, horretarako –azpijokoak, manipulazioak eta intoxikazioak egiteko– prestatu, argitaratu eta eurrez erabiltzen den eskuliburua, ZEN plana deitzen dena, alegia, Espainiako estatuko komunikologo politiko-militarrak prestatuak izan diren ofiziala. Are gehiago, Euskal Herrian bizi den gatazka politikoan kazetariak erabil dezaten pentsaturik eta idatzirik dagoela hain ezaguna izanik. Ramírez de la Piscina-ren testua nahikoa eta soberan da alor horretan gertatzen

dena ulertzeko, pista ugari ematen baititu, baina, beste zenbait alorretan, xehetasun ñimiñoetara iristen dela ikusirik, harrigarri egiten zait hutsune hori. Leioako kazetari-gaiek horren berri zehatza izan behar dutelakoan nago, eta UEUK argitaratutako liburu honen balizko irakurleek ere bai.

Bosgarren kapituluari ere iruzkintxo bat egin nahi nioke, batez ere norbait animatuko balitz agian interesgarri suerta dakiokelakoan. Diodan bidena-bar, zein den liburuaren azpitituluua: interpretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak. Beraz, uste dut atal hau dela esango dudana adierazteko lekua. Izan ere, egileak ongi asko azaltzen ditu, urratsez urrats, kontakizuna nola egin behar den, analisisa egiteko konbinatu behar diren elementuak, eta baloraziorako orduan erabili behar direnak<sup>4</sup>. Baina, elementu horietaz aparte, hitzetan bertan ezkututzen den teknika osobete eta garatua dago, aipatzen ez dena. Alegia, argumentazioari dagokiona. Kontua ez da, beraz –ez soilik esan nahi dut–, arazoaren funtsa argitzen duten aurrekariak, adituen, agintarien, inplikatuena zein norberaren balorazioak, datu esplikatiboak etab. taxuz kokatzea; argumentazioaren eta silogismoen nondik norakoak azaldu behar dira; azken finean, liburuan aipatzen direnak, kanpoko teknikak baitira –externoak–, argumentazioarenak, ostera, barnekoak –internoak–. Teknika horiek oso garatuta daude, helburu zehatzetarako erabiltzen dira, eta borroka ideologikoan ezinbesteko tresna dira, hots, Euskal Herrian lan egin nahi duen kazetari batek menderatu beharrekoak, hain justu<sup>5</sup>. Horrekin batera, hitzen

4. Ikus 103. or.

5. Agian iruzkin hau argitaratzen denerako, pasata egongo da gai honi buruz egilearen Unibertsitateko departamentu berean egindako doktore-tesi oso interesgarri bat: *El editorialista, operador de inclusión en el estado* (José María Pérez Martínez).

dekodifikaziorako printzipioak azaltzen hasteko premia, aipatuko nuke nik; ezaguna denez, asko erabilitako terminoak, erabiltzearen poderioz higatu egiten baitira; eta, okerrago dena, ideologiaz zamaturik dauzkagu. Beraz, termino horien iturrietara jotzea proposatzen dut nik, neurri profilaktiko lez. Adibide bat ematearren, tolerantzia *versus* errespetua.

Eta, amaitzeko, etika. Interes berezia erakusten du Txema Ramírez de la Piscina testu osoan zehar, oro har etika, eta bereziki kazetariaren kodigo deontologikoa aipatzen, azpimarratzen eta xehetzen. Kontua aspaldikoa dela dirudi. Ez bakarrik liburu honetan agertzen dena, baita UEUko ikastaro batean (1995) eta *Elkarrikasi* aldizkarian (1995) egindakoa ere. Hamabi artikulutan sailkatutako kode etikoa prestatu du Ramírez de la Piscina. Alabaina, bereiztu beharra dago moral eta etikaren artean. Gehienetan, nahasi egiten diren arren –hiztegi marduletan ere bai, alafede!– ez dira, ordea, gauza bera. Morala, indarrean dagoen egoeraren arauen kode zintzoa den bitartean, etika, egoera berriari begira dago, aurrekoarekin eteteko

behar den ikuspuntua da, idatzirik ez dagoena; erreferentziarik ez du, egoera berria gauzatzeko sortzen den prozesuan bertan mamitzen doa. Pertsona etikadunarentzat gutxi balio du moralak, atzean utzi nahi duen egoerarako pentsaturik dagoen errezetak baino ez baititu gordetzen aipatutako kode moral horrek. Egia-prozesuari lotuta dator etika, harekiko leialtasunean; ez, beraz, erabat gauzaturik dagoen eredu mantendu eta kontserbatzeko<sup>6</sup>. Morala eginda dago –gaur egun deseginda ere bai, aitortzen dut–; etikak, berriz, asmatzea eskatzen du. Hemen, jakina, kazetari izateko eredu sartzen gara. Kazetari profesionala da UPVko irakasleak proposatutakoa –profesional ondradua; oso oker ez banago, morala–; etikak bestelako kazetari bat du eredu, egiarekin eta justiziarekin<sup>7</sup> konpromiso estua duen kazetaria –kazetari militante profesionala, alegia–. Bere egitekoa ez da ekilibrioak gordetzea, intuizioan oinarriturik ikuspegi berriak zabaltzea baizik. Oraingoan, ez naiz luzatuko, ikertzeko eremu zabala dagoela esan nahi izan dut; hasteko, morala eta etika ez direla nahastu behar.

*Jesus Mari Zalakain*

---

6. Balio baldin badu, hara hemen Jose Antonio Marinaren testu bat: «De la ética, como de Santa Bárbara, nos acordamos cuando truena, y ahora está tronando. Pero nos acordamos mal y acabaremos empachados. Hablamos de ética como si fuera un código, un decálogo laico, una deontología, una jaculatoria o un conjuro, cuando en realidad es *un modo de crear*». (*El Mundo* egunkarian aterataren testu hau, baina, tamalez ez dut gorde data-erreferentzia)

7. Egia konkretuak, ez abstraktuak. Nahi duenarentat, badago honi buruz euskal testu bat: Antxon Azkargortak frantsesetik itzulitako *Etika* (ed. Besatari, Bilbo, 1996).